

GEROA

GEROA I

LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO BORONDATEZKO
AURREIKUSPENEN PLANAREN PRESTAZIO

ARAUATEGIA

2023/03/30ean EGUNERATUA

2023

www.geroa.eus

Lugaritz Pasealekua 27 - 20018 Donostia

T. 943 31 70 22 / F. 943 31 72 80

1. ARTIKULUA: PLANAREN ETA BAZKIDE SUSTATZAILEEN IZENA.....	2
2. ARTIKULUA: HASIERA-DATA ETA IRAUPENA	2
3. ARTIKULUA: BAZKIDE OSO EDO ARRUNTAK ETA ONURADUNAK INTEGRATZEA.....	2
3.1. BAZKIDE OSO EDO ARRUNTAK ETA ONURADUNAK.....	2
3.2. ADIMEN-DESGAITASUNA EDO GAIXOTASUN MENTALA DUTEN BAZKIDEEN INTEGRAZIOA ..	4
4. ARTIKULUA: BAZKIDE BABESLEEN INTEGRAZIOA	5
4.1. ATXIKIMENDU-ESKAERA.....	5
4.2. EPEAK.....	6
5. ARTIKULUA: EKARPENAK	6
5.1. ADIMEN-DESGAITASUNA EDO GAIXOTASUN MENTALA DUTEN BAZKIDEEN EKARPENAK	7
5.2. ERRETIROA HARTZEKO LEGEZKO ADINETIK GORAKO LANGILEEN EKARPENAK.....	7
5.3. EKARPEN OSAGARRI PERTSONALAK.....	7
6. ARTIKULUA: PRESTAZIOAK	8
6.1. PRESTAZIO MOTAK.....	8
6.2. PRESTAZIOEN ZENBATEKOA.....	14
6.3. PRESTAZIOAK ORDAINTZEKO MODUA.....	16
6.4. ORDAINDU GABEKO EKARPENAK DITUZTEN PRESTAZIOEN TRATAMENDUA.....	18
6.5. BIZI-AGIRIA	19
7. ARTIKULUA: ESKUBIDE EKONOMIKOEN INTSULDAKETA	19
7.1. SARRERAKO INTSULDAKETA.....	19
7.2. IRTEERAKO INTSULDAKETA.....	19
8. ARTIKULUA: ADMINISTRAZIO-GASTUAK	21
9. ARTIKULUA: BAZKIDE OSO EDO ARRUNTEN ETA ONURADUNEN INFORMAZIOA ETA DEFENTSA.....	22
10. ARTIKULUA. PLANAREN JARRAIPEN BATZORDEA	22
10.1. OSAERA.....	22
10.2. JARRAIPEN BATZORDEAREN EGINKIZUNAK	24
10.3. JARRAIPEN BATZORDEAREN DEIALDIA	24
10.4. JARRAIPEN BATZORDEAREN ERABAKIAK.....	25
11. ARTIKULUA: PLANA AZKENTZEKO ARRAZOIAK ETA ONDAREAREN HELBURUA	25
LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA. 2010/05/01 BAINO LEHEN SORTUTAKO PRESTAZIOAK DITUZTEN BAZKIDEAK.....	26
BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA. 2010/05/01 ETA 2014/12/31 ARTEAN SORTUTAKO PRESTAZIOAK DITUZTEN BAZKIDEAK	26
AZKEN XEDAPENA. INDARREAN JARTZEA	27

1. ARTIKULUA: PLANAREN ETA BAZKIDE SUSTATZAILEEN IZENA

Planaren izena GEROA I LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO GIZARTE-AURREIKUSPENEKO PLANA da, GEROA PENTSIOAK LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO BGAEn integratua (aurrerantzean, GEROA).

Planaren bazkide sustatzaileak honako hauek dira:

ADEGI; helbidea: Mikeletegi pasealekua 52, 20009 Donostia, Gipuzkoa

Sindikatuak:

ELA; helbidea: Kongsulatu kalea 8, 20011 Donostia, Gipuzkoa

LAB; helbidea: Pokopandegi kalea 9, 20018 Donostia, Gipuzkoa

CCOO; helbidea: Carlos I.aren hiribidea 1, 20011 Donostia, Gipuzkoa

UGT; helbidea: Katalina Erauso kalea 7, 20010 Donostia, Gipuzkoa

Zehaztutako atxikimendu-arauak bete eta erakundea sostengatzen eta garatzen laguntzen dutenak dira eta izango dira bazkide babesleak; halakotzat dagozkien ekarpenak eta erakundean bazkide oso edo arrunt gisa sartzen diren hurrenez hurreneko langileen kolektiboari dagozkionak egingo dituzte, horien izenean eta kontura.

2. ARTIKULUA: HASIERA-DATA ETA IRAUPENA

Planak 1996ko urtarrilaren 9an hasi zuen jarduera eta iraupen mugagabea du.

3. ARTIKULUA: BAZKIDE OSO EDO ARRUNTAK ETA ONURADUNAK INTEGRATZEA

3.1. BAZKIDE OSO EDO ARRUNTAK ETA ONURADUNAK

a) Bazkide oso edo arruntak

Jardunekoak

Gipuzkoako sektore siderometalurgikoko langile guztiak dira eta izango dira jarduneko bazkide oso edo arruntak, eta nahitaez geratuko dira erregimen honen mende, banaka edo gerora berretsi behar izan gabe; hori guztia, Gipuzkoako industria siderometalurgikorako hitzarmen-akordioan edo hura ordezkaturako duten

bestelakoetan ezarritakoaren ondorioz. Halaber, ekonomia-jardueraren beste edozein sektoretako langileak ere jarduneko bazkide oso edo arruntak izango dira, baldin eta gaur egun eta aurrerantzean, izaera bereko akordioen indarrez, prestazio-erregimen honetan integratzera behartuta badaude.

Bazkidetzat hartuko dira, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan probintziako hitzarmen kolektiborik ez duten enpresetako langileak, baldin eta erakundearen gobernu-organismoek onartu ondoren hari borondatez atxikitzen bazaizkio.

Jarduneko bazkide oso edo arruntzat hartuko dira, halaber, borondatezko edo nahitaezko eszedentziaren edota behin-behineko ezintasunaren ondorioz —berez, haiekin lan-harremana zuen bazkide babesleari dagozkion ekarpenak etetea dakar berekin—, pertsonalki eta zuzenean erakundeari borondatezko ekarpenak egiten dizkioten langileak, aurreko atalean adierazitakoak, betiere ekarpen horiek eszedentzia edo ezintasuna hasten den egunetik aurrera egiten badituzte.

Etendakoak

Etendako bazkide oso edo arruntak dira eta izango dira, bazkide babeslearekin/babesleekin lan-harremana eten izanaren ondorioz beren ekarpena osorik eten duten —gertakari eragilea baino lehen— baina erakundearen eskubideak mantentzen dituzten bazkideak.

Era berean, etendako bazkide oso edo arruntak izango dira, bazkide eta bazkide babesle izateari utzi izanaren ondorioz beren ekarpena osorik eten duten bazkideak.

Ez dira etendako bazkide oso edo arruntzat hartuko, arestian aipatutako hitzarmen-akordioetan edo antzeko izaerako itunetan finkatutako betebeharra mantendu arren, dagozkien ekarpenak egiten ez dituzten enpresetako bazkideak. Enpresa horiek berankortzat hartuko dira.

Pasiboak

Erakundeko bazkide pasiboak izango dira, erakundearen estatutuetan eta arautegian 2015/07/01 baino lehen ezarritako erregulazioan oinarrituta, prestazioa finantza-errenta edo biziarteko errenta moduan kobratzeko eskubidea onartu zaien bazkide oso edo arrunt izandako pertsona fisikoak.

b) Onuradunak

Onuraduntzat hartzen da, bazkide oso edo arruntaren, edo bazkide pasiboaren heriotza gertatuta, erakundearen aurrean eskubide ekonomikoen hartzekodun bihurtzen den haren kausaduna. Izaera hori izango dute erakundearen estatutuan ezarritako ordenaren arabera izendatutako pertsonak.

3.2. ADIMEN-DESGAITASUNA EDO GAIXOTASUN MENTALA DUTEN BAZKIDEEN INTEGRAZIOA

GEROArako bazkide oso edo arrunt izanik, erakunde eskudunak % 33 edo maila handiagoko ezgaitasuna onartzen dien eta Gizarte Segurantzak ezintasun iraunkor osoa edo maila handiagoko kotizaziopeko prestazioa onartzen ez dien langileek adimen-desgaitasuna edo gaixotasun mentala duen bazkide oso edo arrunt gisa sailkatzeko eska diezaioke erakundeari.

Bazkide oso edo arrunt bat, estatutuen ondorioetarako, adimen-desgaitasuna edo gaixotasun mentala duen pertsona gisa sailkatzeko, horretarako eskumena duen erakunde ofizialak egindako ezgaitasun-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Zehazki, Aldundiko erakunde eskudunak kolektibo horrentzat ezarritako sailkapena kontuan hartuko da, eta etorkizunean, erakunde horrek ezartzen dituen aldaketak txertatuko dira, erakundearen estatutuetan xedatutakoaren ondorioetarako.

Gaur egun ezarrita dagoen sailkapena honako hau da:

2005/12/31ko EZS, 2100-2109 eta 2300ko urritasunarekin

2100 ADIMEN-ATZERATASUN SAKONA	2106 GARAPEN- NAHASMENDUA
2101 ADIMEN-ATZERATASUN LARRIA	2107 NAHASMENDU KOGNITIBOA
2102 ADIMEN-ATZERATASUN	2108 AFEKTIBITATE-NAHASMENDUA
2103 ADIMEN-ATZERATASUN ARINA	2109 JOKABIDEAREN ASALDURA
2104 MUGAKO INTELIGENTZIA	2300 ADIMEN-ATZERATASUNA
2105 HELTZE-PROZESUKO	

Adimen-desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten bazkide oso edo arruntak izango dira, arestian deskribatutako egoeran izanik, GEROAri atxikitako sektore eta enpresentzat hitzarmen-akordioetan ezarritakoaren ondorioz erakunde honetan nahitaez sartuta geratzen diren hainbat ekonomia-sektoretako langile guztiak, gerora banaka berretsi behar izan gabe.

Adimen-desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten bazkide oso edo arruntak, era berean, jarduneko edo etendako bazkideak izango dira, erakundeko gainerako bazkide oso edo arrunten termino eta kontzeptu beretan.

4. ARTIKULUA: BAZKIDE BABESLEEN INTEGRAZIOA

Bazkide babesleak dira eta izango dira, adierazitako atxikimendu-arauak bete eta erakundea sostengatzen eta garatzen laguntzen duten enpresak. Horretarako, halako bazkide gisa dagozkien ekarpenak egingo dituzte, baita erakundean bazkide oso edo arrunt gisa sartzen diren langileen kolektiboaren izenean eta kontura dagozkien ekarpenak egin ere.

4.1. ATXIKIMENDU-ESKAERA

Euskal Autonomia Erkidegoan probintziako hitzarmen sektorialik ez duten sektore edo enpresen atxikimendu-eskaerekin batera enpresaren hitzarmen edo itunean ezarritako akordioa aurkeztu beharko da, eta erakundearen estatutuekin bat datozela adierazi.

Nolanahi ere, sektore edo enpresa berriak sartzeko nahitaezkoa izango da erakundearen gobernu-batzordeak adostasuna ematea. Batzar Nagusiko kideei urteko bileran eman beharko zaie horren berri.

4.1.1. Sektoreak

Sartuta geratuko dira Gipuzkoako sektore siderometalurgikoko sozietate eta enpresak, zeinak bertako langileak bezala —1995eko abenduaren 1eko hitzarmen-akordioaren aplikazio-eremuaren barnean edo hori ordezkatzeko duen beste batean daudenak (96-01-03ko GAO)—, nahitaez erakunde honen eremuan sartuta geratuko diren —indibidualki ondorengo baiespen edo onespenerik eman beharrik gabe—, erakunde honen eremuan, izaera hori izango dute, halaber, jarduera ekonomikoaren beste edozein sektoretako sozietate eta enpresek, egun eta aurrerantzean eta horrelako akordioak betetz, prestazio-erregimen honetan sartu beharko dutenek, baita Euskal Autonomia Erkidegoko probintziako hitzarmen kolektiborik ez duten enpresek ere, borondatez ere atxikiko zaizkionek, erakundearen gobernu-organismoek onartu ondoren.

4.2. EPEAK

Erakundearen gobernu-batzordeak bilkura bakoitzean ebatziko ditu aurkezten diren atxikimendu- eskaerak. Ebazpena idatziz jakinaraziko zaio sektore edo enpresa eskatzaileari.

5. ARTIKULUA: EKARPENAK

Ekarpenak bazkide babesleek eta kolektiboko bazkideek egingo dituzte, erakundearen estatutuen 17. artikuluan azaltzen denaren arabera.

Ekarpenak erakundearen kontu korronteetan egingo dira, hilabete amaieran. Bazkide babesleak hilerio bidaliko du beharrezko dokumentazioa bazkide oso edo arruntaren aldeko bana-banako izendapenerako.

Ekarpenak estatutuetan aurreikusitako aurrezki-kapitalizazioko eta arriskuko estalduretara bideratuko dira, gobernu-batzordeak ezarritako ehunekoetan, zenbatekoaren % 93an eta % 7an, hurrenez hurren.

Erakundearen gobernu-organoek baliozki hartutako erabakiaren bidez zehaztuko dute, eta horrek prestazioen arautegi honen aldaketa ekarriko du berekin, bazkide bakoitzaren aldeko guztizko ekarpenen zein proportzio izango den aurrezki-kapitalizazioko prestazioetarako eta zein arriskuko prestazioetarako.

Konpromiso irmoko edozein kolektibotako bazkide babeslea ekarpenen ordainketan atzeratzen bada, urteko interesa sortu ahal izango du. Erakundearen gobernu-batzordeak unean-unean zehaztuko du interes hori. Prozedura bera erabiliko da bazkide oso edo arruntekin.

Konpromiso irmoko edozein kolektibotako bazkide babeslea ekarpenen ordainketan atzeratzen bada, eta betiere enpresak ekarpen bat langilearen nominan atxiki eta erakundearen diru-sarrera egin ez badu, zor diren diru-kopuruek urteko interesa sortu ahal izango dute. Erakundearen gobernu-batzordeak unean-unean zehaztuko du interes hori eta enpresaren kargurakoa izango da.

Beren ekarpenen erregularizazioak egin behar dituzten enpresek, edo mozkinetan parte hartzearen ondorioz ekarpen gehigarriak egiten dituzten enpresek, ezin izango dute sartu ekarpen horietan prestazioa ordaindu zaien langileei dagokien ekarpenik. Egiten badute, ez dute inola ere sortuko jada sortutako prestazioaren kapital gehigarriaren gehikuntzarik.

Erabat ordaindu gabe geratzen diren ekarpenak izatezko edo eskubidezko enpresa enplegatzailaren kaudimengabeziaren edo beste edozein arrazoiaren ondorioz, ez dira eskubide ekonomikoen barne izango, kaltetutako edo gertaera izan duen bazkide oso edo arruntaren edo onuradunaren prestazio-eskubidea sortutako unean. GEROAk ordaindu gabeko horien estaldura ez du inolaz ere bere gain hartuko. Izatezko edo eskubidezko kaudimengabeziaren ondorioz ordaindu gabeko ekarpenek bazkide babesle horri loturiko bazkide oso edo arruntak bakarrik hartuko ditu eraginpean, beren ekarpenei eta beren prestazioei dagokienez.

5.1. ADIMEN-DESGAITASUNA EDO GAIXOTASUN MENTALA DUTEN BAZKIDEEN EKARPENAK

Adimen-desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten bazkide babesleek eta bazkide oso edo arruntek egin beharreko aldizkako ekarpena, gehienez ere, haien sektore edo enpresarentzat une bakoitzean ezarritako ehunekoaren bikoitza izango da, langilearen oinarritzko kontingentzia arrunten oinarria erreferentziatzat hartuta.

Ekarpenaren ehunekoa dagokion sektore-akordioan zehaztuko da. “Gai jakin bati buruzko akordioak” dira, Langileen Estatutuaren 83.3 artikuluan edo enpresa alorreko estatutu-hitzarmen kolektiboetan jasotzen direnak.

Erakundeko gobernu-batzordea arduratuko da adimen-desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten langileen kolektiboarentzat sektore edo enpresek eskatzen duten ekarpenen gehikuntza kasu bakoitzean onartzeaz, eta urtean behin egiten den Batzar Nagusiari jakinaraziko dio.

5.2. ERRETIROA HARTZEKO LEGEZKO ADINETIK GORAKO LANGILEEN EKARPENAK

Erretiroa hartzeko legezko adinetik gorako jarduneko bazkide osoek ekarpenak eginez gero, ekarpen horien zenbateko osoa eskubide ekonomikotzat hartuko da. Ez da inolaz ere arrisku-estalduretara bideratuko.

Bazkideak eskubidea du erretiroa hartzeko legezko adinera iritsi ondoren egindako ekarpenei dagozkien arriskuen estalduretara bideratutako zenbatekoak jasotzeko.

5.3. EKARPEN OSAGARRI PERTSONALAK

25 urtetik gorako adinarekin ekarpenak egiten hasi diren GEROAko bazkide aktiboek eta lan-bizitzan ekarpenik egin ez duten aldiak izan dituztenek beren borondatez ekarpen osagarri pertsonalak egiteko aukera izango dute, honako baldintza hauekin:

- Ekarpn osagarri horiek egiteko unean langileari dagozkion ekarpenen zenbateko bera izango da hileko zenbatekoa.
- Ekarpn osagarriak egin daitezkeen hilabeteen kopurua honako 2 kontzeptu hauen batura izango da:
 - 25 urtetik bazkidea GEROAn kotizazioak egiten hasi zen adinera arteko hilabete kopurua.
 - Lan-bizitzan zehar bazkideak GEROAn kotizaziorik izan ez duen hilabete kopurua.

Gehienez ere hileko 12 ekarpn osagarri egin ahal izango dira urtean.

Ekarpn osagarri pertsonalen zenbatekoa osorik aurrezki-kapitalizazioko estalduretara bideratuko da, eta, arrisku-prestazioen kasuan, ez da kapital gehigarria kalkulatzeko zenbatuko.

6. ARTIKULUA: PRESTAZIOAK

6.1. PRESTAZIO MOTAK

- a) Erretiro arrunta
- b) Adimen-desgaitasuna edo gaixotasun mentala duen bazkidearen erretiro aurreratua
- c) Ezintasun iraunkor osoa, ezintasun iraunkor absolutua eta baliaezintasun handia
- d) Heriotza

A) ERRETIRO-PRESTAZIOA

Bazkide oso edo arruntak bere eskubide ekonomikoak jasotzeko eskubidea izango du honako kasu hauetan:

- Gizarte Segurantzak erabateko erretiro-pentsioa (txanda-kontratua ez) ematen dion unetik aurrera.

- Beste erretiro mota batera heltzen den unetik aurrera, betiere kotizatzeko betebeharririk ez badu.
- Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean erretiroa hartu ezin duenean, erretiroa hartzeko legezko adinera heltzean, betiere une horretan Gizarte Segurantzaren altan jarraitzen ez badu.

B) ERRETIRO AURRERATUAREN PRESTAZIOA (ADIMEN-DESGAITASUNA EDO GAIXOTASUN MENTALA DUTEN BAZKIDEAK)

Adimen-dezgaitasuna edo gaixotasun mentala duen jarduneko bazkide oso edo arruntak, desgaitasun-maila larriagotuz gero (dagokion erakundeak onartua), eta bazkide babesleak proposamen arrazoitua egin ondoren, bere eskubide ekonomikoak jasotzeko eskubidea izango du.

Erretiro aurreratuaren prestazioan kapital gehigarria jasotzeko, bazkide oso edo arruntak zein bazkide babesleak eginda izan beharko ditu adimen-dezgaitasuna edo gaixotasun mentala duen langile bazkidearen aldeko ekarpenak, gutxienez, larriagotze-dataren aurre-aurreko hamar urteetan.

C) EZINTASUN IRAUNKOR OSOAREN, ABSOLUTUAREN ETA BALIAEZINTASUN HANDIAREN PRESTAZIOA

Ezintasun-prestazio guztietarako erabakigarria izango da Gizarte Segurantzak onartutako prestazioen ondorio ekonomikoen data.

Orokorrean, Gizarte Segurantzak baliaezintasun-pentsio irmoa onartzen dionetik aurrera, bazkide oso edo arruntak ondorio ekonomikoen data arte metatutako eskubide ekonomikoak jasotzeko eskubidea izango du.

Salbuespen gisa, Gizarte Segurantzak bazkideari ezintasuna onartzen badiu, baina ez haren ondorio ekonomikoak, gobernu-batzordeak prestazioaren ordainketa erabaki ahal izango du.

Prestazio mota horiek eskuratzeko ezinbestekoa izango da aldeztatik lan-harremana edo baliokidea azkentzea.

Ezintasun iraunkor osoa edo absolutua duen pertsona berriz ere lan-jardueran hasten bada, eta ondorioz, erakunde honetan, eta ondoren gertaeraren bat izaten badu dela heriotza, dela beste ezintasun iraunkor osoa edo absolutua edota elbarritasun handia,

Gizarte Segurantzaren organo eskudunak emandakoa, dela erretirora iristea, heriotzaren, ezintasunaren edo erretiroaren ondoriozko prestazio berria kapital edo errenta bat izango da (estatutu honen 27. artikuluan ezarritako irizpideen arabera). Kapital edo errenta hori kalkulatzeko, kontuan hartuko dira prestazio berria kobratzeko edo, hala badagokio, GEROAk mobilizatzeko eskubidea aitortzen duen unean dauden eskubide ekonomikoak.

Jarduneko bazkide oso edo arrunt bat, GEROari atxikitako edozein jarduera-sektore edo enpresatan gertatutako lan-istripu baten ondorioz, edozein lanbidetarako ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoeran geratzen bada, kontzeptu horren ondoriozko gutxieneko prestazioa 6.010 eurokoa izango da, eskubide ekonomiko gisa, betiere aurrez arrisku-prestaziorik jaso ez badu.

C.1. Egoera bereziak ezintasun iraunkor osoaren, ezintasun iraunkor absolutuaren eta baliaezintasun handiaren prestazioetan

C.1.1. Aldi baterako ezintasunean dauden bazkideak eta zuzeneko ordainketa

Ezintasun-proposamena eta ABEn 18 hilabeteko iraungipena

Gizarte Segurantzak onartutako ezintasuna aintzat hartzeko unean Gizarte Segurantzaren edo Mutuaren zuzeneko ordainketaren bidez aldi baterako ezintasunaren prestazioa jasotzen egongo balira, bazkide oso edo arruntei (betiere ezintasun-proposamen batek edo ABEn 18 hilabeteko iraungipenak eraginda, eta hortaz, enpresan baja emanda daudela) aukera emango litzaieke Gizarte Segurantzaren edo Mutuaren zuzeneko ordainketan egon ziren denboraldiko langilearen zatiaren ekarpenak egiteko, eta orduan ez liriteke etendako bazkidetzat hartuko.

Kasu horretan, langileak ekarritako kopuruaren % 14 arriskurako izango da eta % 86 aurrezteko, bazkidea jardunean egon balitz bazkide babesleak ekarriko zuen arriskua estaltzearren.

ABEn 12 hilabeteko iraungipena

Gizarte Segurantzak onartutako ezintasuna aintzat hartzeko unean Gizarte Segurantzaren edo Mutuaren zuzeneko ordainketaren bidez aldi baterako ezintasunaren prestazioa jasotzen egongo balira, Bazkide Oso edo Arruntei, betiere ABE egoera 12 hilabeteko epea agortuta eraginda, aukera emango litzaieke Gizarte Segurantzaren edo Mutuaren zuzeneko ordainketan egon ziren denboraldiko langilearen zatiaren ekarpenak egiteko (enpresaren ekarpenak eginak izan beharko

lukete); beraz, Kapital Gehigarria handitzen da. Langileak egindako ekarpenetik kopuruaren % 7 arriskurako izango da.

C.1.2. EIO, EIA edo BH istripuaren ondorioz onartuak

Ezgaitasuna ematen den unean etenda dagoen bazkide batentzat ezgaitasuna istripuz gertatu dela frogatzen duten ebidentziak aurkezten badira soilik Istripuaren data kontutan hartuko da ondorio ekonomikoen dataren orde, langile bat etenaldian dagoen eta kapital gehigarriaren eskubidea zehazteko, eta ondorio ekonomikoen data erabiltzen jarraituko da kapital gehigarria kalkulatzeko eta errenta kobratzen hasteko (aukera ematen badu).

Lanetik kanpoko istripuren bat izanez gero, urtebeteko epea izanen da, istripua gertatu denetik ezgaitasuna eman arte, salbuespen hori aplikatu ahal izateko.

C.1.3. Etendako bazkideak

Ondokoa hartuko da kontuan etendako bazkidea zehazteko: Gizarte Segurantzak aintzat hartutako ezintasunaren ondorio ekonomikoen datan, erakundeari ekarpenak egiten ez dizkiona, nahiz eta ezintasunaren izapidetzea enpresan baja hartu aurretik hasi izan, ondoko edozein kasutan: kontratuaren amaiera, iraizpena, borondatezko lan-uztea... Etendako bazkide horiek ez dute eskubiderik izango arrisku-zenbatekoak jasotzeko, baina bai, ordea, ekarpenen batura eta sorturiko interesak.

C.1.4. Eskubide ekonomikoak

Ebazpenik bada, ebazpenaren dataren aurreko ondorio ekonomikoak dituen ezintasuna aintzat hartzen badu ebazpen horrek, enpresak zein bazkide langileak epealdi horretan eginiko ekarpenak kontuan hartuko dira prestazioan bilduriko eskubide ekonomikoak kalkulatzeko.

C.1.5. Heriotza ezintasunaren eskaera egin ondoren

Gizarte Segurantzak ebatzitako behin betiko ezintasunagatik, heriotza aurretik enpresan baja emango balitz (eta Geroa Pentsioak, BGAErako ekarpenak bukatuko balira), onuradunek bi aukera izango lituzkete heriotzaren ondoriozko prestazioa eskatzerakoan: arriskuarekin (kapital gehigarria) edo etenda (kapital gehigarririk gabe), betiere ondokoak beteko balira:

- Ezintasunaren prestazioa arriskuarekin izatea GEROA PENTSIOAK, BGAEn.

- Ezintasunaren eskaera heriotza aurretik aurkeztu izana GEROAn; edo bestela, heriotza ezgaitasunaren ebazpen-datatik 4 hilabete bitartean gertatzen bada.

C.1.6. Ezintasun iraunkor osoa (EIO)

EIO bat emateak dagokion prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea eragiten du, kontingentziaren ondorio ekonomikoen data baliatuz (betiere prestazioa ezintasun-ebazpenaren ondorengo lau hilabeteetan eskatzen bada), nahiz eta langabeziaren aukera hartu.

Langileak Gizarte Segurantzak emandako EIO bat badu, 2001/01/01a baino lehenagokoa, baina langabezia aukeratzen badu, eta horren ondorioz EIOren ondorio ekonomikoak 2001/01/01a baino geroagokoak badira, GEROAko prestazioa aurrezte-mailakoa soilik izango da (eskubide ekonomikoak), bi arrazoi direla-eta:

1. Prestazioa eman den uneari dagokio, eta ez ondorioetarako datari.
2. Ezintasunaren ondorioetarako data onartzen bada, GEROAko etendako bazkidea izango da.

Langile bati EIO bat ematen badiote:

- 1998ko urtarrilaren 1a eta 2000ko abenduaren 31 artean lan-istripuaren ondorioz, eta epai judizialaren bidez, lan-istripuaren ondoriozko EIA edo BH onartzen badiote, 6.010 euro kobratuko du gehigarritzat, atzeraeraginarekin emandako EIA edo BHzat hartuko denez gero.
- 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera, lan-istripuaren ondorioz eta gero, epai judizialaren bidez, EIA edo BH dela onartzen badiote, ordaindurikoa 6.010 euro arte osatuko diote (aurreko prestazioa zenbateko horretara iritsi ez balitz).

C.1.7. Behin-behineko EIO eta EIA

GEROAKo prestazio-eskaeraren eskubidea, behin-behineko ezintasun baten kalifikazioa (6 hilabete) behin betiko bihurtzean onartuko da, GSINk ezarritako ondorio ekonomikoen data berarekin, hau da, behin-behineko ezintasunaren data. GEROAn aurkezteko epeari dagokionez, prestazio-eskaeraren aurkezpena behin betiko ezintasuna eman denean egin behar da eta ez lehenengo ebazpenarekin.

C.1.8. Epai bidez onartutako ElOren ondorio ekonomikoen data

Gizarte Segurantzako ondorio ekonomikoen data bat ez badator epai irmoarenarekin, eta GEROAko kotizazioetan bi daten artean hutsuneren bat badago (era berean, lan-harremanean), epaiaren ondorio ekonomikoen data hartuko da arriskurako eskubidea zehazteko eta kapital gehigarria kalkulatzeko, baldin badagokio.

C.1.9. Aldizkako langile finkoen ezintasun iraunkor osoa, absolutua eta baliaezintasun handia.

Gizarte Segurantzak ondorio ekonomikoen data jarduerarik gabeko epealdiaren barruan duen ezintasuna ematen dien aldizkako langile finkoek jarduerarik gabeko epealdiari dagozkion ekarpenak ordaintzeko aukera izango dute kapital gehigarria jasotzeko eskubidea izateko.

Ekarpen horiek langilearen kuota bakarrik hartuko dute barnean, eta arriskuari dagokion zenbateko osoa deskontatuko da (bai langileari dagokion parte, bai enpresari ordaintzea legokiokeena). Enpresako bajak berariaz jaso behar du jarduera gabeko aldizkako langile finkoaren ezintasunaren ondoriozko bajaren arrazoia.

D) HERIOTZA-PRESTAZIOA

Jarduneko edo etendako bazkide oso edo arruntaren heriotza-UNETIK aurrera, horren onuradunak edo onuradunek eskubide ekonomikoak jasotzeko eskubidea izango dute. Jarduneko bazkide oso edo arruntaren heriotza GEROAri atxikitako edozein jarduerasektore edo enpresatan gertatutako lan-istripu baten ondoriokoa bada, bazkide oso edo arruntak izendatutako onuradunak edo onuradunek gutxienez 6.010 euro jasoko dituzte, eskubide ekonomiko gisa, betiere langileak aurrez arrisku-prestaziorik jaso ez badu.

D.1. Heriotza lan-istripuaren ondorioz

Istripuaren data kontutan hartuko da heriotza-dataren orde, etendako bazkidea den eta kapital gehigarrirako eskubidea duen zehazteko. Hala ere, istripuaren eta heriotzaren artean ezintasun-onarpena balego eta horren eskaera GEROAra egina ez balego, etendako bazkidea izango litzateke.

Ondorio ekonomikoen data erabiltzen jarraituko da kapital gehigarria kalkulatzeko eta errenta kobratzen hasteko (halakorik egongo balitz).

D.2. Egoera bereziak heriotza-prestazioan

D.2.1. Zurztasuna

Errenta finantzarioa jasotzen duen seme-alaba hiltzen bada, ondokoa jasoko lukete oinordekoek:

1. Errenta kobratzen duen beste anai-arrebarik balego (25 urtetik beherakoak edo ezinduak), horien errentak gehituko lirateke. Horretarako, hildakoak jasotzeke dituen kontu-unitateen egungo balioa kalkulatu da, eta kapital hori aldi baterako errenta finantzario bilakatuko da, eta bakoitzak duen errentaren behin-behinekotasunarekin egongo da indarrean.
2. 25 urtetik beherako edo ezindutako beste anai-arrebarik ez badago, hildako seme-alabaren legezko oinordekoak kapital moduan kobratuko du hildakoak jasotzeke dituen kontu-unitateen egungo balioa.

D.2.2. Alarguntasuna

Baldin eta, heriotza-prestazio batean, bazkidearen onuraduna alarguna edo izatezko bikote erregistratua bada eta prestazioa ordaintzeko modua errenta gisa bada, alargunak edo izatezko bikote erregistratuak heriotzaren ondoriozko prestazioa kobratzen hasteko aukera izango du, edo, bestela, prestazio horren unean eskubide ekonomiko guztiak GEROAn duen posizio-kontu propioan sartzeko aukera izango du (Erakundeko bazkide ez balitz, halakotzat alta emango litzaioke). Hala, beste kontingentzia bat izanez gero soilik eskuratuko lirateke eskubide ekonomiko horiek.

Behin bi aukeretako bat hasita, biak dira atzeraezinak.

6.2. PRESTAZIOEN ZENBATEKOA

Bazkide arruntak eta bazkide babesleak bazkide oso edo arruntari egotzitako aldizkako ekarpenek eratutako banako ondarea eskubide ekonomikotzat jotzen da. Horrek baliabideen kudeaketan sortutako etekinak barneratzen ditu, behin gastuak ordaindu eta "*kapital gehigarriaren*" kasuan, dagozkion hornidurak, erreserbak barne, egin ondoren.

Kapital gehigarria:

Jarduneko bazkide bakoitzaren eskubide ekonomikoen zenbatekoa indartzeko edo areagotzeko helburuarekin, eta ezintasunaren, heriotzaren eta desgaitasunen bat dutenen erretiro aurreratuaren kasuetan, kontingentzia horietarako prestazioan "kapital gehigarria" sortzen da. Hori kalkulatzeko, azken sei hilabeteetan egindako ekarpenen batezbestekoa prestazioaren gertakari eragilearen datatik une bakoitzeko erretirorako legezko adina bete arte geratzen den hilabete kopuruarekin biderkatuko da, betiere prestazioa erakundearen estatutuetan ezarritako epean eskatzen bada. Ezintasuna edo heriotza sei hilabete baino gutxiagoko aldizkako ekarpenen epean gertatzen bada, kalkulurako oinarritzat kontutan hartuko da berez kotizatutako ekarpenen batezbestekoa.

Kapital gehigarrirako eskubidea duen prestazio bat eskatzen duen eta jaso nahi duen bazkide orok ezin izango du ordaindu gabeko ekarpenik izan kontingentzia-dataren aurreaurreko 12 hilabeteetan.

Dena dela, prestazioen zenbatekoa, prestazioaren kobrantza edo intsuldaketa-eskubidea ezagutarazten den unean dauden eskubide ekonomiko baloratuen %100arekin kalkulatu da. Eskubide horiek kapital moduan kobratu ahal izango dira, behin-behineko errentan edo horrela badagokio, biziarteko errenta geroratuaren estaldurarako aktuarialki gauzatutako errenta moduan.

6.2.1 ARRISKU-PRESTAZIOA ZEHAZTEN DUEN BATEZ BESTEKO EKARPENAREN KALKULUA

Jarduneko bazkide oso edo arrunt bakoitzaren aldeko eskubide ekonomikoen zenbatekoa sendotzeko edo gehitzeko, eta jarduneko erretiro aurreratuaren, ezintasunaren eta heriotzaren prestazioei dagokienez, prestazio gehigarria (kapital gehigarria) sortuko da kontingentzia horietarako; bazkide oso edo arrunt eta bazkide babeslearen artean ordainduriko, eta bazkide langileari azken sei hilabeteetan egotzitako (kontingentzia gertatzen den hilabetea alde batera utzita edo aurreko hilabetea, hileko lehen egunean gertatzen bada), batez besteko ekarpena prestazioa eragin duen gertakari eragilea eman den eta uneoro erretirorako legezko adinera iritsi artean geratzen diren hilabeteekin biderkatzearen emaitza izango da prestazio hori.

Batez besteko ekarpena kalkulatzeko ez dira atzerapenak kontutan hartuko, atzerapen horiek prestazioa egin ondoren ordaindu badira. Berankortasunaren, hitzarmeneko igoeren edo beste doikuntza batzuen ondorioz, prestazioa egin aurretik ordainduta ez dauden hileko ekarpenen gehikuntzak ere ez dira kontuan hartuko.

Prestazioa eta kapital gehigarriaren kalkulua egin ondoren, ez dago gehikuntzak egiteko aukerarik.

Erretiro aurreratua, ezintasuna edo heriotza sei hilabetetik beherako aldizkako ekarpenen epea duen bazkide oso edo arruntari egokitzen bazaio, osorik kotizaturiko hilabeteen batez besteko ekarpena hartuko da prestazio gehigarria (kapital gehigarria) kalkulatzeko oinarri gisa.

Erretiro aurreratua, ezintasuna edo heriotza hilabetetik beherako aldizkako ekarpenen epea duen bazkide oso edo arruntari egokitzen bazaio, proportzioen arabera jokatu da kontingentzia gertatu den hilabeteen egin beharreko hilabeteko ekarpena kalkulatzeko. Ekarpeneren kalkulu-oinarria langileak ohiko baldintzetan izandako hilabeteko kontingentzia arruntan kotizazio oinarriari dagokiona izango da. Enpresak emango du datu hori.

Azken sei ekarpenen batezbestekoa kalkulatzeko, zenbateko horiek hartuko dira, horien artean aurki daitezkeen aldaketak alde batera utzita (hainbat sektoretan lan egin baitute).

Etenik dagoen eta ondoren GEROAri berriz kotizatuko dion bazkide oso edo arrunt bati gertakari eragilearen aurreko hurreneko ekarpenak hartuko zaizkio kontuan kapital gehigarria kalkulatzeko, eta hortaz, bazter utziko dira etendako bazkide bihurtu aurretik eginiko kotizazioak.

Kapital gehigarria kalkulatzeko, azken 6 kotizazio errealak hartuko dira, azken hilabetea kontuan hartu gabe, hau da, gertakari eragilearena, eta betiere legez ezarritako mugak gainditu gabe.

ABEren 18 hilabeteko iraungipenak edo ezintasun-proposamen batek eraginda (ezintasun iraunkorraren prestazioen egoera berezien C.1. atalean deskribaturikoak), zuzeneko ordainketan dauden bazkideen kapital gehigarria kalkulatzeko, enpresan baja eman aurreko azken 6 kotizazio errealak hartuko dira (egiteke dauden ekarpenen kontzeptupean GEROAra langileak eginiko ekarpena kontuan hartu gabe).

6.3. PRESTAZIOAK ORDAINTZEKO MODUA

6.3.1. ESKAERA EPEA

Prestazioetarako eskubidea, aurrezkoa zein arriskua dutenak, gertakari eragilea izan eta hurrengo egunetik izango da eraginkorra, ondorio ekonomikoen eguna kontuan hartuta, betiere eskaera, onespena izan eta hurrengo lau hilabeteetan eskatzen bada, edo ezintasunaren kasuan, ebazpen administratibo edo epai judizialaren hurrengo lau hilabeteetan. Bestela bada, ondorio ekonomikoen eguna ebazpen-egun bera edo

ondorengoa denean, pentsioa eskaera-egunaren hurrengo egunetik sortuko da. Baina ebazpen-eguna ondorio ekonomikoen egunaren ondorengoa bada, ebazpen-egunetik prestazioaren eskaera-egunera dagoen denbora-tartea soilik hartuko da epez kanpoko epealditzat.

Epez kanpoko epealditzat ezarritako epe-amaieratik eskaera-data arteko denbora-tartea hartuko da, eta tarte horrengatik eragin ekonomikoa izango du.

Prestazio-eskabidea hasten denetik 6 hilabete igaro ondoren, espedienteak irekita jarraitzen badu osatu gabe dagoelako, digitalki artxibatuko da eta eskatu gabekotzat joko da ondorio guztietarako; prestazio-eskabidea berriz hasi beharko da.

6.3.2. PRESTAZIOAK ORDAINTZEKO MODUA

Prestazioak ordaintzeko modua eskubide ekonomikoek prestazioen sortzapen-unean (prestazioaren eragiketa-data) erdietsitako zenbatekoak zehaztuko du, estatutuen 27. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aurrekoaren arabera, prestazioak gauzatu ahal izateko, erakundeak ordainduta eta esleituta izan behar ditu langilea jardunean egon den azkeneko epealdiari dagozkion ekarpenak.

Kontuan izan behar da enpresek ekarpenen ordainketa langilearen azkeneko jarduera-aldi horren hurrengo hilabete osoan egiten dutela eta GEROAK beste 20 eguneko epea duela ekarpen horien banakako esleipena egin ahal izateko. Hori dela eta, jarduneko bazkideen kasuan, orokorrean kontingentzia gertatzen denetik 2 hilabete eta 20 egun igaro arte, erakundeak ezin du hasi prestazioa ordaintzeko tramitea. Hala ere, epe hori murriztu egin daiteke ekarpenen harrera eta esleipena epe orokor hori baino lehen osatu bada.

Ekarpenak esleitzeko prozesua bete denean eta bazkideak edo onuradunak behar den dokumentazio guztia aurkeztu duenean, prestazioa gauzatzeari ekingo zaio; prestazioa ordaintzeko epea kobratzeko moduaren arabera izango da:

- KAPITAL moduan edo beste erakunde batera intsuldatuta ordaintzeko kasuetan: epea 15 egunekoa da eskabidea osorik aurkezten denetik aurrera.
- ERRENTA moduan ordaintzeko kasuetan: errenten ordainketa, errentak aldi bakoitzaren amaieran ordaintzekoak direnez, eskabidea osorik aurkezten den hilaren hurrengoaren 20aren ondorengo lehen lanegunean egingo da.

Prestazioak, kapital zein biziarteko errentak, bazkide pasiboaren edo onuradunaren kontu-korrontean ordainduko dira, betiere titularra bada.

Finantza-errenta moduan ordaindu beharreko prestazioetan, eskubide ekonomikoak GEROA II Enpleguko Gizarte Aurreikuspeneko Planera eramango dira. Bertatik, errentak edo beharrezko itzultzeak ordainduko dira, plan horren arautegiari jarraikiz.

Prestazioak, behin ordaindu direnean (ordainketa-era kapitala bada) edo ordainketa hasi denean (errenten kasuan) itzulezinak eta aldaezinak dira, erakundeari egotzitako akats posibleen kasuak salbuetsirik. Horregatik, ezingo dira atzera egin, ez mobilizatu, ezta ordainketa-era aldatu ere, ez arrazoi fiskalengatik ezta bestelako arrazoiengatik ere.

6.3.3. ERRENTAK ITZULTZEA

Kasu guztietan, plan honi jarraituz biziarteko errenta moduan ordaintzen diren prestazioak itzultzearen ondorio diren onuradunek, plan beretik jasotzen jarraituko dute, ordainketa mota edozein delarik ere.

6.4. ORDAINDU GABEKO EKARPENAK DITUZTEN PRESTAZIOEN TRATAMENDUA

Prestazioa eskatzeko espedientea jaso ondoren, GEROAk egiaztatuko du bertan jasota dauden ekarpen guztiak behar bezala ordainduta daudela.

Ordaindu gabeko ekarpenik izanez gero, GEROAk idatziz jakinaraziko dio langileari zer egoeratan dagoen eta horrek zer-nolako eragina duen haren prestazioan.

Langileak edo onuradunak 6 hilabeteko epea izango du enpresak ordaindu gabeko ekarpenen ordainketa egin dezan; epe hori igaro ondoren, GEROAk prestazioa gauzatuko du.

Langileak edo onuradunak ezarritako epea laburtu edo luzatu nahi badu, idatziz eskatu beharko dio GEROAri.

Ordaindu gabe dauden ekarpenen ordainketa edo ekarpenen gehikuntza prestazioa gauzatu ondoren:

Ez dute inoiz ekarriko gauzatutako prestazioa berriz kalkulatzetik, ordaintzeko modua aldatzerik, kapital gehigarriaren gehikuntzarik edo kapital gehigarrirako eskubidea ematerik (aurrezki-prestazioa izan bazen eta ekarpen horiek kapital gehigarrirako aukera ekarri bazioten).

6.5. BIZI-AGIRIA

GEROako aktuario-errenta baten hartzaileak konpromisoa hartuko du erakunde honi urtero bizi-agiria emateko, eta prestazio horren ordainketa dokumentu hori entregatzearen mende egongo da.

Aktuario-errenta baten hartzailea hiltzen bada, oinordekoek horren berri eman beharko diote garaiz eta behar bezala, GEROari, eta hori egiten ez badute eta hilabeteko ordainketarekin jarraitzen bada oinordekoei ez dagozkien hilekoak itzultzea eskatuko zaie. Bete ezean, auzibidera joko da.

7. ARTIKULUA: ESKUBIDE EKONOMIKOEN INTSULDAKETA

Jarduneko bazkide oso edo arruntak ezin izango ditu erakundean bere alde onartutako eskubide ekonomikoak beste borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunderen batera intsuldatu.

Erakunde honetako prestazioen bazkide pasiboek eta onuradunek, hots, dagozkien prestazioak jasotzeko eskubidea duten pertsona fisikoek, erakundeak baldintza hori onartuta, ezin izango dute, inolaz ere bere eskubide ekonomikoak beste borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde batera intsuldatu, 7.2.b) artikuluan, bazkide pasiboentzat ezartzen dena salbuetsirik.

Erakundeak ez du onartzen eskubide ekonomikoak berreskuratzeko eskubidea.

7.1. SARRERAKO INTSULDAKETA

GEROako bazkideen sarrerako intsuldaketak onartuko dira enpleguko beste BGAE batzuetako posizio edo eskubideetatik badatoz.

7.2. IRTEERAKO INTSULDAKETA

GEROaren estatutuen 14. artikulua araber, eskubide ekonomikoak intsuldatu ahal izango dira betiere ondorengo baldintzak betetzen badira:

a) Barne dagoen kontingentzietako bat gertatu baino lehen eskatutako intsuldaketa

Inongo Jarduneko Bazkide Oso edo Arruntak ezin izango du onartutako eskubide ekonomikoak beste Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitate batera intsuldatu.

Entitate honetako prestazioen Bazkide Pasibo eta Onuradunek, hots, dagozkion prestazioak jasotzeko eskubidea duten pertsona fisikoek, Entitateak onartuta baldintza hori, ezin izango dute, inolaz ere bere eskubide ekonomikoak beste Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitate batera intsuldatu, hurrengo b atalean ezarritakoa izan ezik.

Entitateak eskubide ekonomikoen berreskuratze eskubidea ez du onartzen.

Etenik dauden bazkide oso edo arruntek, beren eskubide ekonomikoak intsuldatu ditzakete, dagozkien bazkide babeslearekin edo babesleekin beren lan-lotura amaitzen dutenetik, bi urteko epea igaro ondoren.

Ondorioz, ez dira izango etendako bazkide oso edo arruntak nahiz eta mantendu ezarritako betebeharra hitzarmen-akordioetan edo lehen aipatutako izaera bereko itunetan, dagozkien ekarpenak egiten ez dituztenak.

Intsuldaketak eskubide guztien arabera izan beharko du, eta lehentasunezko enpleguko beste plan batera bakarrik egingo da.

Ondorio guztietarako, intsuldaketa egiteko epea Gobernu Batzarraren eskabidea osorik aurkeztu ondoren lehen bilera egiten den egunetik hasiko da, hark baitu hura onartzeko edo ukatzeko ahala Erakundearen Estatutuetan ezarritakoaren arabera.

b) Barne dagoen kontingentzietako bat gertatu ondoren eskatutako intsuldaketa

Barne dagoen edozein kontingentzia gertatu ondoren, bazkideak estatutuetan eta arautegian ezarritako mugen arabera, prestazioa kapital moduan kobratzeko eskubidea edukiko balu, prestazio hori kobratzeko edo bere eskubide ekonomikoak beste BGAE batera intsuldatzeko aukera izango luke.

Eskubide ekonomikoak intsuldatzeak bazkideari ez dio gasturik sortuko, ezta aipaturiko eskubide horiei inolako gutxitzerik edo kalterik ekarri ere.

Beharrezko dokumentazioa:

- GEROAko etendako bazkide oso edo arruntaren eskaera-adierazpen sinatuta eta BGAE hartzailea berariaz aipatzen duena, erakunde hartzaile honi baimena emanaz bere izenean eskubide ekonomiko guztien intsuldaketa eskatzeko.
- Erakunde hartzailearen izena. Harremanetarako pertsona, helbidea eta telefonoa.

- Erakunde hartzailearen estatutuak eta arautegia.
- Erakunde hartzailearen atxikimendu-ziurtagiria.
- Lan-bizitzaren agiri eguneratua.
- Erakunde horren kontu korrontearen zenbakia.

Dokumentazioa jasotzat hartuko da GEROAk intsuldaketari aurre egiteko beharrezkoa den dokumentazio guztia jasotzen duenean. Ondorio guztietarako, intsuldaketa etendako bazkide oso edo arruntak “eskatutzat” emango da, gobernu-batzordearen lehen bilera egiten denean, eta horrek onartzeko edo ukatzeko ahalmena du, erakundearen estatutueta ezarritakoaren arabera.

Ezarritako baldintzak aztertu ondoren honela jardungo da:

- Zuzen balego, gobernu-batzordearen onarpenaren ondoren eskubide guztien intsuldaketa egingo da, betiere gobernu-batzordea egin den datatik bi hilabete baino epe luzeagoa ez bada, informazioan agertzen den kontu korrontean, ekarpenen xehetasun historikoarekin batera.
- Zuzen ez balego, erakunde hartzaileari idazki bat bidaliko zaio intsuldaketari uko egitearen arrazoiak zehaztuz.

Erakundeak irteerako intsuldaketa-eskaeretarako artxibo berezi bat sortuko du, alde batetik onartutakoak eta bestetik ukatutakoak bereiziz.

8. ARTIKULUA: ADMINISTRAZIO-GASTUAK

Prestazioen arautegi honen bidez zehazten diren planaren administrazio-gastuak, batez besteko ondareari atxikitako % 0,50ean finkatu dira, IKE edo AKEko inbertsioetako komisio inplizituak barne.

Ehuneko hori erakundearen gobernu-batzordeak hurrengo ekitaldietarako aldatu ahal izango du. Hurrengo aldaketak BGAE alorren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari jakinaraziko zaizkio, horrek onar ditzan.

9. ARTIKULUA: BAZKIDE OSO EDO ARRUNTEN ETA ONURADUNEN INFORMAZIOA ETA DEFENTSA

1. Otsailaren 23ko 5/2012 Legearen Erregelamendua onartzen duen 203/2015 Dekretuaren 52. artikuluari jarraituz, informazio eta defentsa eskubidea gauzatzeko, erakundeko bazkide oso edo arruntek eta onuradunek ohiko bidetik ezin badute eskubidezko informazioa lortu, gobernu-batzordeari erreklamazioa aurkeztu diezaiokete, gutxienez honako hauek jasota:

- a) Eskatzailearen identifikazioa eta, hala badagokio, hura ordezkatzeko duen pertsonarena, eta, horrez gain, eskatzen duen informazioa jasotzeko lehentasunezko bidea eta lekua.
- b) Erreklamazioa eragiten duten gertakarien adierazpena.
- c) Lekua eta data.
- d) Eskatzailearen sinadura edo beste edozein bidez adierazitako borondate-egiazkotasunaren akreditazioa.

2. Eskaera erakundearen bulegoetan aurkeztu daiteke edo bertara bidali, paperean edo beste edozein modutan, betiere haren egiazkotasuna, osotasuna, kontserbazioa eta erakundeak jasotzea bermatzen badira.

3. Eskaera erakundearen bulegoetan aurkezten denean, eskatzaileak aurkeztu izanaren egiaztagiria eska dezake.

4. Eskaerak erakundeko zuzendari nagusiak edo horrek esku utzitako pertsonak erantzungo ditu, lehen baino lehen, eta gobernu-batzordeari horren berri emango dio egiten duen berehalako lehenengo bileran. Erreklamazioa erakundearen bulegoetan sartu zen egunetik 6 hilabetera ez bada erantzun gaitzetsia izango da, eskatzaileak indarreko legeak onartzen duen beste edozein ekintza aurrera eraman ahal izateko.

10. ARTIKULUA. PLANAREN JARRAIPIEN BATZORDEA

10.1. OSAERA

Planak Jarraipen Batzorde bat izango du, Gobernu Batzarreko 6 kidek osatuko dutena, honela:

- Bazkide babesleen aldetik, ADEGIK izendatutako 2 ordezkari, Jarraipen Batzordearen ordezkagarritasunaren % 50 izango dutenak.
- Bazkide oso edo arrunten aldetik, ELA, LAB, CCOO eta UGT zentral sindikalek izendatutako 4 ordezkari, Jarraipen Batzordearen ordezkagarritasunaren % 50a izango dutenak. Jarraipen Batzordeko ordezkagarritasun sindikalak Batzar Nagusirako ezarritako proportzionaltasun bera mantendu behar du.

Dena den, 6 kideen artean Erakundeko lehendakaria eta idazkaria egongo dira, eta ordezkatzeko dituzten erakundearen ordezkari gisa zenbatuko dira.

Erakunde bakoitzak ordezkari bat izendatu ahal izango du, titularra bertaratu ezin bada ordezkatzeko duen erakundearen izenean jardun dezan.

Jarraipen Batzordeko kide diren ordezkari horien izendapenak Batzar Nagusirako eskatutako baldintza berak bete behar ditu, eta, gainera, kide horiek izendatzeko lege ezarritako baldintzak ere bete beharko dira.

Jarraipen Batzordeko kideek lau urtez beteko dute beren agintaldia, eta berriz hautatu ahal izango dituzte.

Ordezkariek Erakundeko bazkide ez izateko aukera izango dute.

Jarraipen Batzordeko kideei beren kargua kendu ahal izango die Batzar Nagusiak, eta, era berean, sekretu profesionala gordetzera behartuta egongo dira Jarraipen Batzordeak berak isilpekotzat jotzen dituen gaietan. Kideak kargurik gabe utzi ahal izango dira Jarraipen Batzordeak espedientea formulatu ondoren.

Zehaztutako aldi hutsik gera daitezkeen karguak betetzeko, ADEGIk edo ELAk, LABek, CCOOk eta UGTk proposamena egingo diote kargutik kendu den kideak ordezkatzeko zuten erakundeari.

Ordezkariek aldatu egin daitezke haien ordezkatzeko duten elkarteak edo erakundeak erabakitzen badu.

Aurreko bi ataletan zehaztutako kasuetan, izendapen berriek arestian ezarritako 4 urteko agintaldia osatzeko geratzen den aldi sortuko dituzte ondorioak, eta egingo den lehen Batzar Nagusian emango da horien berri.

10.2. JARRAIPEN BATZORDEAREN EGINKIZUNAK

Honako eskumen eta ahalmen hauek izango ditu:

1. Lehentasunezko enpleguko gizarte-aurreikuspeneko planaren kudeaketaren jarraipena egitea.
2. Hala badagokio, lehentasunezko enpleguko planaren araudiak hasieran onartzea eta aldatzea.
3. Bazkideen interesean jardutea, zuhurki, ezagueraz eta arduraz.
4. Planaren kaudimena eta oreka zaintzea, eta onartuta eta prestatzen ari diren prestazioei behar bezala erantzuteaz arduratzea.
5. Araudiak betetzea eta betearaztea.
6. Dagokion plana lekualdatu eta bat egiteari, zatitzeari eta azkentzeari buruz erabakitzea.
7. Hala badagokio, plana txertatuta dagoen borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundearen gobernu-organoetan parte hartzea.
8. Inbertsio-printzipioen idatzizko deklarazioaren berrikusketa proposatzea eta, aldian behin, planteatzea.
9. Araudien arabera planteatzen dizkieten erreklamazio guztiei erantzutea eta haiek tramitatzea.
10. Plana borondatezko gizarte-aurreikuspeneko zein erakundetan barneratuko den erabakitzea.
11. Legez ezartzen diren gainerakoak.

10.3. JARRAIPEN BATZORDEAREN DEIALDIA

Jarraipen Batzordea Erakundeko lehendakariak eskatuta deituko da, idatziz, gutxienez bilkura egiteko data baino 10 egun lehenago, dagokion gai-zerrendarekin.

Jarraipen Batzordea bere egoitza sozialean edo izendatzen den lekuan bilduko da, bai aurrez aurre, bai baliabide telematikoen bitartez, ohiko izaeraz gutxienez urtean bi aldiz hiruhileko desberdinetan, edota bereziki lehendakariak deitzen duenean.

Jarraipen Batzordea balioz eratuta geratuko da bilkuran ADEGItik ordezkari bat gutxienez eta sindikatuen aldetik 3 gutxienez agertzen direnean edo ordezkatuak daudenean.

Lehendakariak ohiz kanpoko Jarraipen Batzordea deituko du Jarraipen Batzordeko kideen erdiek eskatzen dutenean. Urtean gehienez ere modu horretan deitutako hiru bilkura egin ahal izango dira. Deialdiarekin batera bilkuraren gai-zerrenda igorriko da.

Jarraipen Batzordearen herenak puntuak sartu ahal izango ditu ohiko bilkuren gai-zerrendan, baldin eta idatziz jakinarazten badio lehendakariari gutxienez bilkura egin baino astebete lehenago.

10.4. JARRAIPEN BATZORDEAREN ERABAKIAK

Indarreko araudian ezarritako gehiengoaren arabide beraren arabera ebatziko dira gaiak.

Bozketen emaitza ezartzeko ez da kontuan hartuko boto kopurua, ordezkari bakoitzaren ordezkagarritasuna baizik. Ordezkagarritasun hori Batzar Nagusirako ezarritako berbera izango da.

Bazkide sustatzaile eratzailen, bazkide babesleen edo bazkide oso edo arrunten ordezkariak batzorde horretako beste edozein ordezkariaren eskuetan delegatu ahal izango dute botoa. Horretarako, delegazioa idatziz jakinarazi behar diote Erakundeari, bilkura bakoitzerako bereziki, bilkura egin baino lehen.

Dagokion akta-liburua eramango da.

11. ARTIKULUA: PLANA AZKENTZEKO ARRAZOIAK ETA ONDAREAREN HELBURUA

Planak iraupen mugagabea du. Hauek izango dira plana amaitzeko arrazoiak:

- Gobernu-batzordeak behar bezala arrazoituta erabakitzea.
- Bazkide arruntik eta onuradunik ez izatea.

- Planaren berrikuspen aktuarialaren ondoriozko bideragarritasun-neurriak nabarmenki gauzatu ezin izatea.

Gertakari hauetako bat ematen bada, erakundearen beste plan batera intsuldatuko dira eskubide ekonomikoak.

LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA. 2010/05/01 BAINO LEHEN SORTUTAKO PRESTAZIOAK DITUZTEN BAZKIDEAK

2010eko maiatzaren 1a baino lehen sortutako prestazioak dituzten bazkideek biziarteko errentekin jarraituko dute prestazioak ordaintzeko modu gisa. Errenta horiek ondorengo parametroekin kalkulatu ziren:

- Interes-tasa teknikoa: % 4
- Heriotza-tasen taulak: GRM-F 95
- Mozkinetan parte hartzea Estatutuetan ezarritakoaren arabera
- Ezkontideari itzultzea: % 50
- 25 urtetik beherako seme-alabei itzultzea: % 9 adin horretara iritsi arte

2014/12/31an kolektibo honetan 1.651 bazkide eta onuradun zeuden.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA. 2010/05/01 ETA 2014/12/31 ARTEAN SORTUTAKO PRESTAZIOAK DITUZTEN BAZKIDEAK

2010eko maiatzaren 1 eta 2014ko abenduaren 31 artean sortutako prestazioak dituzten bazkideek biziarteko errentekin jarraituko dute prestazioak ordaintzeko modu gisa. Errenta horiek ondorengo parametroekin kalkulatu ziren:

- Interes-tasa teknikoa: % 3,5
- Heriotza-tasen taulak: PERM 2000C
GKM-F 95 heriotza-asegururako
- Mozkinetan parte hartzea Estatutuetan ezarritakoaren arabera
- Ezkontideari itzultzea: % 60

Heriotza-asegurua errentaren ordainketaren lehenengo 6 urteetarako, betiere errenta itzulezina balitz, eta zenbatekoa une bakoitzeko hornidura matematikoaren urtero beherakor den ehunekoa izango da. (% 60 - % 50 - % 40 - % 30 - % 20 - % 10).

2014/12/31an kolektibo honetan 516 bazkide eta onuradun zeuden.

AZKEN XEDAPENA. INDARREAN JARTZEA

Arautegi hau BGAE alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak onartzen duenean jarriko da indarrean.